

DIRU-ITURRIAK

Diru-sarrerei dakogokionez, bi zatitan bana ditzakegu gure enpresa, batetik **diru kontuak ez dituen zatia** dago, hau da, truke jarduera bidez ez dugu diru sarrerarik lortuko. Azken finean, gure enpresa trukaketa kontuetan nabarmentzen delako eta diru kontuak ez dira tartean sartzen. Izan ere, gure aplikazioan trukaketak egingo ditugu. Hau da, pertsona batek bere produktuarekin trukaketa egin nahi duenean, beste pertsona batek bere beste produktu batekin trukaketa egin nahi duela adierazi behar du. Trukaketan biak **akordio** batera heldu behar dira, beraz, trukaketan egindako kontuak ez daude gure esku.

Harrezkero bildaketa prozesuak gure baitan egongo dira, honekin marjina bat jarriko dugu irabaziak izateko. **DHL** eta **Correos** elkarteekin bildaketa eginez gero, zerbitzua eta segurtasunagaitik **50 zentimoko sarrera** irabaziko dugu **produktu bakoitzeko**.



Bestalde, azokak egingo ditugu, eta bertan, herri txikietako dendeak eskaintzen duten arropa salduko dugu. Argi dago, salduko dugun arroparen prezioa guk ez dugula aldatuko ezta ezarriko, hori denden erabakia izango litzateke, beraien produktuak baitira, beraz, prezio dinamikoak izango ditugu eta ez dira gure menpe egongo, denda bakoitzak erabakitzen duen arabera aldatuko baitira prezioak. Produktu bakoitzaren salmentan izango dugun **irabazien %25 gure enpresak** irabaziko lukeen dirua izango litzateke. Produktu bakoitzaren **irabazien %75a** berriz, saldu den produktuari dagokion **denda txikira** joango litzateke. Izan ere, denda txiki horiei **publizitatea** egingo diegu, azoketan nagusitasuna emango diegulako beraien produktuak saltzen.



Horretaz gain, hainbat birziklatze elkartei publikitatea egingo diegu aplikazioan gehitutako iragarkien bitartez. Elkarte horiek **KA/AKUV** eta **KONTSUMOBIDE** dira, hauek gure enpresaren

filosofia jarraitzen dute, kontsumismo moderatu baten alde baitaude. Gainera, elkarte txikiak direnez, nagusitasuna emango diegu publizitatea emanez, eta horrela, guk mozkinak irabaziko ditugu eta beraiek nagusitasun hori lortuko dute.

ARROPAREN PREZIOA (azoketan) (markaren arabera prezioak altuagoak edo baxuagoak izango dira)

Aranburu Serafin (Bilbo)	Prakak -----20-40€ Kamisetak ----- 10-20€ Blusak -----30-50€ Jertseak ----- 15-20€ Zapatillak -----50-80€
Japi (Elorrio)	Prakak ----- 15-25€ Kamisetak ----- 10-20€ Poloak ----- 15-35€ Sudaderak ----- 25-40€ Zapatillak ----- 50-70€
Sergent Mayor (Durango)	Prakak ----- 15-30€ Kamisetak ----- 10-20€ Blusak ----- 15-40€ Poloak ----- 15-35€ Jertseak ----- 20-30€
Provenza (Durango)	Prakak -----20-40€ Kamisetak ----- 10-20€ Jertseak -----15-30€ Gonak ----- 10-25€ Soinekoak -----15-35€

ARROPEN MAUKAK (azoketan)

Aranburu Serafin (bilbo)	+80€ ----- %10-ko deskontua
Japi (elorrío)	+75€ ----- %5-eko deskontua
Sergent Mayor (durango)	+90€ ----- %10-eko deskontua
Provenza (Durango)	+120€ ----- %15-eko deskontua

Denda hauetan deskontuak aplikatzen dira gastatutako zenbatekoaren arabera. Adibidez, **Aranburu Serafin (Bilbo)n**, 80 €baino gehiago gastatzen baduzu, % 10eko deskontua izango duzu. **Japin (Elorrío)**, 75 €baino gehiago gastatzen baduzu, % 5eko deskontua jasoko duzu. Bestalde, **Sergent Maiorrean (Durango)** 90 eurotik gorako gastuari esker, % 10eko deskontua duzu. Azkenik, **Proventzan (Durango)**, 120 €baino gehiago gastatzen baduzu, % 15eko deskontua izango duzu. Denda bakoitzak gutxieneko gastu-atalase bat du dagokion deskontua aktibatzeko.

Udaletxeei ere diru laguntza ezberdinak eskatu ahal dizkiezu, egiten dituzuen herriko azoketan herriko salmenta txikiei bizia ematen diezuelako eta herriari bizia ematen diezuelako. Hemendik ere diru sarrerak lortu ditzakezue.